

**2012KO MARTXOAREN 15EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamabosta.

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hamabi.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Iñaki Saldaña Herrero
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2012ko otsailaren 16ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- UDAL TALDEAREN IZEN BERRIA.

Alkatea jaunak ezagutzera eman du, Unai Baztarrika zinegotziak aurkeztutako idatzia, Korporazioak ezagutu dezan: *“idatzi honen bidez, taldearen izena NAHIA izatera pasako dela adierazten dugu. Aldaketa hau udalaren funtzionamendu eta ondorio gutziekin jasota gera dadin eskatzen dugu”*.

3.- ARAU SUBSIDIARIOAK. Ondarre, 29 areako Arau Subsidiarioen aldaketarekiko irizpide eta helburuak onartzea eta hasierako onespina ematea.

Alkate jaunak, hirigintza batzordeko proposamen honen berri eman du:

“Gaia : Arau Subsidiarioen aldaketa: ONDARRE, 29 area. Irizpide eta helburuak onartzea eta hasierako onespina.

AURREKARIAK

1.- 2011ko martxoaren 18ko datarekin, ASPE ERAIKUNTZA METALIKOAK, S.L.ek Ondarre, 29 Arearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko dokumentua aurkeztu du. Zoru ez hiritargarria denez, ingurugiroari dagokionez, EKOLURek idatzi du eta Gaizka Perosterena arkitektoak eta Patxi de Assas abokatuak, jarduera ekonomiko produktiboetarako aprobetxamendua handitzeari buruzko dokumentua.

2.- Espedientearekin jarraitu ahal izateko itxaron beharreko bi hilabeteak pasatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta euskara departamentuaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren erantzunak jaso dira, Arau Aldaketak Kultur Ondarean inongo eraginik sortzen ez duela adierazten delarik.

3.- Maiatzaren 6an, sarrera izaten du Aurrerakin dokumentua, IEEBarekin batera, Patxi de Assas abokatuak aurkeztuta.

4.- 2011ko ekainaren 2an, txosten honek ardatz duen AA.SS.en aldaketaren IEEBaren nondik norakoak ezartzen dituen erreferentzia-dokumentuak sarrera izan zuen Beasaingo Udaletxean.

5.- Ekainaren 30eko 2/2006 Zoru eta Hirigintzaren Legearen 90. artikulua arabera, Udalbatza Osoak 2011ko urriaren 6an, Aurrerakina baldintzekin onartu zuen eta bi hilabeteko epean jendaurrean jarri zen, GAON, Diario Vascon eta Berrian 2011ko urriaren 11, 8 eta 12an hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz, alegazio eta iradokizunak aurkezteko.

6.- Halaber, Beasaingo udalerriarekin muga egiten dituen, Azpeitia, Beizama, Bidegoian, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Olaberria, Ordizia eta

Ormaiztegiko udaletxeetara ere Aurrerakina bidali zen ezagutu ahal izateko. Ingurugiroari buruzko Aurre-txostena ere eskatu zen.

7.- Alegazio eta iradokizunak aurkezteko epean ez da batere aurkeztu

8.- 2011ko azaroaren 24an sarrera izan zuen "Ingurugiro Inpaktuari buruzko txostenak" eta baldintzekin onartutako Aurrerakin erabakiarekin batera, ASPE ERAIKUNTZA METALIKOAK, S.L.ri bidali zitzaion, Ondarre, 29 areako Arau Subsidiarioen aldaketa eskatu zuena izan zelako.

9.- 2012ko otsailaren 8ko datarekin, interesatuek hasierako onespena emateko dokumentua aurkeztu dute eta teknikoki eta juridikoki aztertu ondoren, ikusi da ordenazioarekiko eta aldatu nahi den helburuarekiko eragina ez duten zuzenketa batzuk egin behar direla.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten dio (apirilaren 2ko 7/1985, Legearen 22,2c) artikulua ematen dio eskuduntza Udalbatza Osoari eta onartzeko gehiengo absolutua behar da, Lege horretako 47,3i) artikulua araberaren arabera):

Lehenik. Ondarre, 29. Areako Arau Subsidiarioen aldaketaren 2012ko urriaren 6ko baldintzatutako udalbatzaren erabakian Aurrerakina onartzean ezarritako **irizpide eta helburuak onartzea**, Ingurugiro Inpaktuaren alde aurreko txostena emateari buruzko 2011ko azaroaren 21eko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpenean ezarritako baldintzak jasoz.

Bigarren. Ondarre, 29. Areako Arau Subsidiarioen aldaketarekiko dokumentuari **hasierako onespena ematea**, aipatutako irizpide eta helburuen arabera, behin-behineko onespena emateko dokumentuan, 2012-02-22ko honekin batera doan txosten teknikoan adierazitako xehetasunak zuzentzeko baldintzarekin. Laburbilduz xehetasun horiek hauek dira:

- Eremuaren azalera gehikuntzaren eta G eta H lursailen gehikuntzaren arteko desadostasuna.
- C lursailaren okupazio-azalera ere inkongruentzia azaltzen da.
- Arearen aldatutako fitxaren taulan (orubeen egungo, proposatutako eta guztien eraikigarritasuna) akatsa dago.
- %15eko aprobeitxamendu lagapenaren eta dotazio estandarren %5eko kalkulua egiteko, guztira dagoen eraikigarritasun ponderatua kontutan hartu behar da eta ez bakarrik beheko oinarena.
- Lursail bakoitzaren aldatutako fitxan, PERIa egiteko beharra kendu eliminatu egin behar da, izan ere, 29 areako Arau Subsidiarioen aldaketak, antolaketa xehaketa ere aurreikusten duelako.
- Lursail bakoitzari atxikitutako aparkaleku-dotazioa ez da zuzena.

Hirugarren. *Jendaurrean jartzea, GAOn, Diario Vascon eta Berrian azkena iragarkia argitaratzen denetik hilabeteko epean, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.*”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenaren alde azaldu dira.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- KONTRATUA LUZATZEA

Alkatea jaunak, gizarte-ongizateko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“*Gaia: Eguneko zentroa kudeatzeko eta erabiltzeko kontratua beste urte baterako luzatzeko proposamena.*”

Loinatz Eguneko Zentroa kudeatzeko Goxara S.L. enpresarekin sinatuta dugun kontratua beste urte baterako luzatzea proposatzen du Gizarte Ongizate Batzordeak, 2011ko prezioei %2,8ko igoera aplikatuz (igoera hori izan bai da Aldundiak Udalarri egin diona. Horrela, 2012. urterako prezioak ondorengoak izango dira:

- *Arreta astelehenetik ostiralera: 39,63€*
- *Arreta asteburuak eta jai egunak: 45,61€*
- *Garraioa astelehenetik ostiralera: 12,83€*
- *Garraioa asteburuak eta jai egunak: 14,79€*

Prezio hauetan ez dago BEZa sartuta.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenaren alde azaldu dira.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- ARANGOITI FUNDAZIOA. Arangoiti Fundazioan bizilagunen ordezkaria izendatzea.

Alkatea jaunak, gizarte-ongizateko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“*Gaia: Arangoiti Fundazioko Patronaturako bizilagunen ordezkaria izendatzeko proposamena.*”

Arangoiti Fundazioko Estatutuak 11. artikuluan Patronatuaren konposaketa jasotzen du, eta bertan adierazten denaren arabera Patronatuko kideari bat Beasaingo bizilagunen ordezkaria izango da.

Era berean estatutuen 12. eta 13. artikuluek diotenez, Bizilagunen ordezkaria Patronatuak aukeratuko du Udalak proposatuta eta bere kargua lau urteko denboraldirako izango da.

Orain arte izan den bizilagunen ordezkari bezaka egon den pertsonak 4 urteko epealdia egin du.

Guzti hori dela eta bilduek 2012-02-15ean egindako Ongizate Batzordeko bileran proposatzen dute JOSU ARAMBURU OYARZABAL J.a Arangoiti Fundazioko Patronaturako bizilagunen ordezkaria izatea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenaren alde azaldu dira.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nahiz eta ados ez egon aldaketa zergatik eman den, iruditzen zaigu legezkoa dela aurretik egon denari lau urteetan egin duen lana eskertzea”.

Alkate jaunak (BILDU): “Gu berarekin egon ginen eta eskertza hori egin zen.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

6.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

a.- Garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetzak proiektuak.

Alkatea jaunak, gizarte-ongizateko ondorengo proposamenaren berri eman du: “Gizarte-ongizate batzordeak 2012ko otsailaren 15ean egindako bileran, txosten honi atxikita doazen, garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetzak proiektuak arautzen dituen oinarriak onartzea proposatzen dio Udalbatza Osoari:

“GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIN LANKIDETZA PROIEKTUAK

1.- Xedea.

Oinarri hauen xedea, herrialderik txiroenetako biztanleen gizarte- eta ekonomia-egoera garatu eta hobetzeko jarduerak burutzea helburu nagusitzat duten irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak emateko arauak jartzea da, hala nola, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeei (GGKE) edo erlijio-kongregazioei, hain zuzen ere beren bitartez elkarlan-programak antolatu eta garatzeko.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten eta deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein

antolakuntzak edo erakundek izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkari itza iraunkorra EAEan baldin bada eta, bereziki, Beasaingo herriarekin loturak baldin baditu.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkari itza iraunkorra EAEan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkari itza iraunkor horrek hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEko bulegoetan.

Eskatzaileak, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntzaren inguruan Beasainen ekintza publiko bat egiteko proposamena aurkeztu beharko du. Deialdi honetara aurkeztutako proiektuari diru-laguntza ematea onartuko balitz, proposatutako ekintza publikoa aurrera eraman beharko litzateke. Ekintza honen formulazioa, deialdi honetan aurkeztutako eskaerarekin batera aurkeztu beharko da. (sentsibilizazio jardura aurrera eramatea erakunde eskatzailearen gain egongo da, bai antolakuntza baita kostua ere. Sentsibilizazio ekintza 2012an burutu beharko da, ahal izanez gero urriko lehenengo astean).

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor-ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...).

3.- Hautaketarako irizpideak.

Proiektuak zuzen baloratzearen, beraietan azaldutako oro egiaztatzen duten datu guztiak aurkeztuko dira.

Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa da.

Gutxienez bi atalak kontutan izanda (erakundea/proiektua) 40 puntu lortzen dituzten proiektuek bakarrik jaso dezakete diru-laguntza.

Banatzeko den dirua denetara lortutako puntuaketaren arabera banatuko da, punturik gehien lortu duen erakundetik hasi eta banatzeko den dirua erabat bukatu arte honako baremo hauek kontutan izanda:

- 70 eta 100 puntu bitartean: %100*
- 55 eta 69 puntu bitartean: %75*
- 40 eta 54 puntu bitartean: %50*

Erakundeak Beasainen duen eragina (50 puntu arte)

- a) Gipuzkoan ordezkari itza iraunkorra izatea. (10 puntu)*

- b) *Beasainen ordezkaritza iraunkorra izatea (15 puntu)*
- c) *Beasaindarren partaidetza eta elkarlaguntza aktiboa: Zehaztu eta kuantifikatu egin beharko da Beasaingo zenbat herritarrek parte hartzen duten aktiboki eta zehazki zein ekintzatan, instituzio publikoak nahiz pribatuak edota erakundeak berak antolaturikoak. (10 puntu arte)*
- d) *Azken bi urteetan sentiberatze-ekintzaren bat Beasainen egin izana. (10 puntu arte)*
- e) *Aurreko urteetako beka-programetan parte hartu duten Beasaingo gazte laguntzaileak hartu izana: Zehaztu zein urtetan eta zenbat kooperante. (5 puntu arte)*
- f) *Beasaingo Boluntario Egunean parte hartu izana: zehaztu zein urtetan. (10 puntu arte)*

Proiektua: (50 puntu)

- a) *Proiektuaren deskribapena.(20 puntu arte)*
- b) *Eremu geografikoa (5 puntu arte)*
 - *Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,5 baino txikiagoa izatea edo herri indigenak ere egotea.*
 - *Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,5 eta 0,599 bitartekoa izatea.*
 - *Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,6 eta 0,699 bitartekoa izatea.*

**GGA: Hiru parametroz osaturiko gizarte-adierazlea: bizitza luze eta osasungarria, Hezkuntza eta Garapenerako Nazio Batuen Programak ezarritako bizitzeko baldintzen maila.*
- c) ***Hondamenezko gertaerak jasan dituzten herrialdeetan, kalteei aurre egiteko proiektuak izatea. (5 puntu arte)***
- d) *Giza eskubide, prestakuntza, sanitate eta ekoizpen arloetako proiektuak izatea. (3 puntu arte)*
- e) *Haur, emakume edo/eta ezgaitasuna duten pertsonentzako proiektuak izatea.(3 puntu arte)*
- f) *Lankidetzaproiektuetako zikloetan generoaren ikuspegia sartzen duten proiektuak izatea. (10 puntu arte).*
- g) *Erakunde berak edo eta beste erakunderen batek lagundutako proiektuak. (4 puntu arte)*

4- Hitzarmena egitea.

Udalak hitzarmenak sinatuko ditu diru-laguntzak jasoko dituzten erakundeekin beren legezko ordezkarien bitartez eta, hitzarmen horiek, atal hauek izango dituzte:

- Garatu behar den jardueraren edo programaren xedea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Jasotako diru-laguntza zuritzeko era eta epea.
- Garatutako programari buruzko txostenak eta memoria egin beharra.
- Kanpo-proiektzioa duten jardueretan edo programetan, Beasaingo Udalaren lankidetzaren agerian jarriko da, haren izena eta logotipoa barne direla.

5.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostena, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du edota euskaraz eta gaztelaniaz eta gutxienez ere honako atalak adierazi beharko ditu zehatz-mehatz: bideragarritasuna, iraunkortasuna eta aurreikusitako sarrera eta gastuen aurrekontua. Nolanahi ere, espresuki aipatu behar dira beste herri-erakunde nahiz erakunde pribatuen eskutik jasotako laguntzak zeintzuk eta zenbatekoak diren, erakunde hartzailearen informazio zehatza, ekintza gauzatzeko egutegia (Proiektuak diru-laguntza onartzen den urte berean izan beharko du hasiera) eta baloratuak izatea nahi diren bestelako arlo guztien ziurtagiriak.

- Egingo den sensibilizazio proiektuaren txosten zehatza. Sensibilizazio ekintza hau 2012an burutu beharko da, ahal izanez gero urriko lehenengo astean.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

-Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

-Elkarteen Erregistroko inskripzioaren kopia.

-Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

-Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

6.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, 30 egun naturaleko epean aurkez daitezke, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta berarekin batera jasotzen diren agiriak, zuzenean artxibatu egingo dira.

7.- Aurrekontua

20.481.313.50.02 kontusail espezifikoa jasotzen den irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko elkarte edo erakundeek aurkeztutako garapenerako lankidetzara proiektuetarako diru-laguntzen zenbatekoa 91.712,60 eurokoa da, eta erakunde batek jaso ahal izango duen diru-laguntzaren gehienezko kopurua ez da inondik ere 20.000 eurokoa baino handiagoa izango.

8.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren HEGOAK (Nazioarteko garapenari eta Lankidetzari buruzko azterlanen Institutua) aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako proiektuak, ondoren udal txosten teknikoak egingo da eta Alkatetzari aurkeztuko dio proposamena, honek gaia ebatz dezan.

9.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen erakunde orori, gehienera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabetera.

Ebazpenarekin batera, diru-laguntza ematen den kasuetan, hitzarmena ere bidaliko da. Jakinarazpena jaso eta gehienera ere 20 egun naturaleko epean, hitzarmena behar bezala bete eta sinatuta Udalarari itzuli behar zaio.

10.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 70a, hitzarmena sinatu eta ondorengo bi hilabeteetan ordainduko da, eta gainerakoaren ordainketa, ondorengo atalean adierazten den moduan diru-laguntzaren %100a zuritu ondoren egingo da.

11.- *Diru-laguntza egiaztatzea.*

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Programa burutzeko arduradun izendatutako pertsonari diru guztia, % 100, transferitu izanaren froga-agiria. Froga-agiri horretan, garbi azaldu beharko du bidalitako dirua zehazki Beasaingo dela.

2. Beasaingo Udalak helaraziko duen ereduan, burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea, gastuen zerrenda zehaztua eta dagozkion fakturak edo agiriak sartuta. Proiektuarekin zuzenean loturiko zeharkako gastuek -administraziokoek eta gestiokoek nahiz identifikaziozkoek, formulaziokoek, jarraipenekoek eta ebaluaziokoek- ezin izango dute onartutako diru-laguntzaren %7a gainditu. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak gainditzen ez dituzten erantzukizunezko aitorpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo, bestela, bereziki ze laguntza jaso diren adierazten duena.

12.- *Egiaztatzeko epea.*

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, laguntza jasotako hurrengo urteko uztailaren 31a baino lehen aurkeztu beharko dira.

13.- *Betebeharrak ez betetzea.*

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenaren alde azaldu dira.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- Beasaingo gazte laguntzaileentzat bekak.

Alkatea jaunak, gizarte-ongizateko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gizarte-ongizate batzordeak 2012ko otsailaren 15ean egindako bileran, txosten honi atxikita doazen, Beasaingo gazte laguntzaileentzat beka arautzen dituzten oinarriak (2012. urtea) onartzeko proposatzen dio Udalbatza Osoari:

BEASAINGO GAZTE LAGUNTZAILEENTZAT BEKAK

1.- Xedea

Oinarri hauen xedea, Beasaingo gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapeneko lankidetzak-ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun-baloreak sustatzea da. Horretarako, aukeratutako pertsona gazteek, herrialde horietan zuzenean parte hartzen dute garapeneko lankidetzak-ekintzetan EAEko GGKE baten bidez gutxienez ere hilabete bateko denboraldia eginez eta horrek bide ematen die egoera tokian ezagutzeko.

2.- Aurrekontua

20.481.313.50.01 kontusail espezifikoan jasotzen den Gazte laguntzaileentzat beka programarentzako diru-laguntzen zenbatekoa 10.481,44 eurokoa da.

3.- Diru-laguntza ematen zaien gastuak.

Beasaingo Udalak, jarduera burutu behar den tokian Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jartzeko egin behar duten bidaiaren joan-etorri gastuak ordaindu ahal izango ditu, herrialde hartara joateko behar den bisatua eta sartzeko edota irteteko zergak barne eta baita hautatutako parte-hartzaileetako bakoitzaren gaixotasun eta istripuetarako aseguruak, ostatu-gastuak eta mantenuarenak ere.

Gehienera 3.000 €-ko diru-laguntza onartuko da pertsonako.

4.- Eskatzaileak.

Programa honetan parte hartzeko, gazteek, eskaera egin aurretik gutxienez ere 18 urte beteak izan behar dituzte, gutxienez ere urte bete lehenagotik Beasainen errolatuta egon behar dute eta ezein GGKEekin ere lan-harremanik ez dute izan behar.

5.- Hautaketarako irizpideak.

Hautagaiak aukeratzeko orduan hurrengo arloak hartuko dira kontuan:

- a) Jarduera burutu behar den herrialdeko hizkuntza ezagutzea.*
- b) Kasu bakoitzean egokienak diren eskola-agiriak (tituluak) edo lanbide-prestakuntza izatea, edota behar diren espezialitateak ikasten ari direla ziurtatzea.*

- c) *Lan-egitasmoa.*
- d) *Garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten eskarmentuak eta ezagutzak izatea.*
- e) *Gobernuz Kanpoko Erakunderen bateko partaide izatea.*
- f) *Gazte-elkarte bateko zein gizarte-helburuak dituzten beste erakunderen bateko kide izatea.*
- g) *Euskararen ezagutza.*
- h) *Aurreko urteetan programa honetan parte hartu ez duten gazteek izango dute lehentasuna.*

6.-Eskaerak. Agiriak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- *Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.*
- *NAren fotokopia.*
- *Curriculum Vitae-a: Laneko bizitzaren txostena (Gizarte Segurantzak emana), agertu nahi diren merituak ziurtatzeko agiriak (agiri bidez ziurtatzen diren merituak bakarrik hartuko dira kontuan).*
- *Tokiko erakunderen baten abala (ekintza burutu behar den herrialdekoa) delako GGKE hori han burutzen ari den ekintzetan pertsona horrek parte har dezakeela adierazten duena eta lan-egitasmoa edo lagunduko duen ekintzen profila.*
- *Jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen aurrekontu zehatza:*

-Bidaiaren gastua: (hegazkina+bisatua+zergak)

-Aseguru-polizaren gastuak

-Beste gastu batzuk: osasun-, ostatu- eta mantenu-gastuak eta sentiberatze-jarduera antolatzeko gastuak (argazkiak...).

7.-Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, apirilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean, Herri Administrazioen eta Administrazioko Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan.

Udalak egiaztatuko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango

dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta haiekin batera jasotzen diren agiriak, zuzenean artxibatu egingo dira.

8.-Proposamenak egin eta ebatzi.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizateko batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruzko iritziekin eta Alkatetzari aurkeztuko dio hark ebatz dezan.

Beharrezkoa ikusi ez gero, Batzordeak elkarrizketa bat egin diezaieke eskatzaileei aurkeztutako agiriez informazio gehiago biltzeko.

9.-Pertsona eskatzaileei jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaie diru-laguntza eskatu duten pertsona guztiei, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabeteko epean.

10.-Diru-laguntza jaso ahal izateko bete beharko diren baldintzak.

Ebazpenean bertan jakinaraziko zaie onuradunei diru-laguntza jaso ahal izateko baldintza hauek bete beharko dituztela:

- a) Esleitutako jarduerak eskatzen duen bizimodura moldatzea.*
- b) Jarduera egin behar den Herrialdean, ekintza bukatu arte irautea, gutxienez hilabete bat.*
- c) Proposatutako denboraldirako istripu eta gaixotasunen aseguru-poliza bat kontratatzea.*
- d) Osasunari dagokionez emandako aholku guztiak betetzea.*
- e) Eskarmentu-aldia bukatu ondoren, bertan egindako lanaren memoria, irudiz osatua aurkeztea eskatzen da, eta baita ere Beasainen egingo den sentiberatze-jarduera antolatzea urriko lehenengo ostiralean beste gazte laguntzaileekin batera. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.*
- f) Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izana ziurtatzea edo bereziki zer laguntza jaso diren adieraztea.*

11.-Ordaintzeko modua.

Ordainketa gastuen fakturak edo agiriak aurkeztutakoan egingo da, beti ere, diru-laguntza onartu den urteko azaroaren 30a baino lehen.

Hegazkina, bisatua eta aseguru-polizaren gastuak, bidaia egin aurretik ordaindu ahal izango dira, baina beste gastu guztiak, aurreko artikuluan ezartzen diren baldintzak bete ondoren ordainduko dira.

12.-Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenaren alde azaldu dira.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

c.- Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak.

Alkatea jaunak, gizarte-ongizateko ondorengo proposamenaren berri eman du: *Gizarte-ongizate batzordeak 2012ko otsailaren 15ean egindako bileran, txosten honi atxikita dihoazen ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak 2012 onartzea proposatzen dio Udalbatza Osoari:*

EKINTZA GIZATIARRENTZAKO LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

1- Xedea

Oinarri hauen xedea larrialdi kasuetan daudenentzako ekintza gizatiarrak egiteko laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrez daudenek dituzten beharren arabera gauzatuko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertzeko ezkor guztiak.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundek izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeek (GGKE) edo erlijio-kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorrira jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra EAEan baldin badute, bereziki, Beasaingo herriarekin loturak baldin badituzte.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra EAEan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna

eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEko bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...)

3.- Eskakerak. Agiriak.

Eskakerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskakerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den larrialdiko egoerari buruzko txosten zehatza. Txostena, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du edota gutxienez ere euskaraz eta gaztelaniaz

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Elkarteen Erregistroko inskripzioaren kopia.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

- Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

4.- Eskakerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, urriaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Eskakerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira (8:30etik 13:30era bitartean, ekainetik iralera izan ezik, hil horietan harrera-ordutegia 8:00etatik 13:00etara izango baita) edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide

Orokorren 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Eskaerak irizpide hauek kontuan izanda ebatziko dira:

- Larrialdiak edo hondamendiak eragindako kaltetuen kopurua
- Laguntza jasoko duten pertsona kopurua
- Premia-premiazko ekintzetarako (ura, janaria, jantzia eta etxebizitza)

5.- Aurrekontua.

20.481.313.50.01 kontusail espezifikoan jasotzen den irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko elkarte edo erakundeek aurkeztutako ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako diru-laguntzen zenbatekoa 19.652,70 eurokoa da.

6.- Proposamenak egin eta ebaztea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkatetzari hark ebatz dezan. Eskaerak aurkezten diren heinean ebatziko dira.

7.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen antolakuntza orori, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epe-amaieratik zenbatutako 6 hilabeteko epean.

8.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, ebazpen-datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da.

9.- Diru-laguntza egiaztatzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Programa burutzeko arduradun izendatutako pertsonari diru guztia, % 100, transferitu izanaren froga-agiria.

2. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea, gastuen zerrenda zehaztua sartuta. Programarekin zuzenean loturiko zeharkako gastuek ezin izango dute onartutako diru-laguntzaren %7a gainditu. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitorpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

10- Egiaztatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, diru-laguntza jasotako urtearen hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

11- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenaren alde azaldu dira.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

d.- Garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programak.

Alkate jaunak, gizarte-ongizateko ondorengo proposamenaren berri eman du: *gizarte-ongizate batzordeak 2012ko otsailaren 15ean egindako bileran, txosten honi atxikita dihoazen, garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programa arautzen dituen oinarriak. 2012. onartzeko proposamena egiten dio Udalbatza Osoari:*

GARATZE BIDEAN DAUDEN EDO ZORITXARREN BAT JASAN DUTEN HERRIALDEETATIK DATOZEN HAURREN DENBORALDIRAKO HARRERA PROGRAMA

1.-Xedea.

Oinarri hauen xedea, garatze bidean dauden edo ezbeharren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurrak Beasaingo familietan harreran hartzeko diru-laguntzak arautzea.

2.- Aurrekontua

20.481.313.50.01 kontusail espezifikoan jasotzen den garatze bidean dauden edo ezbeharren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programarentzako diru-laguntzen zenbatekoa 9.171,26 eurokoa da.

3.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten eta deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundek izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkari ita iraunkorra EAEn baldin bada eta, bereziki, Beasaingo herriarekin loturak baldin baditu.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkari ita iraunkorra EAEn dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkari ita iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere EAEn bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor-ekonomikoak, beste deialdietan onartutako dirulaguntzen justifikazio falta...).

4.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostena, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du edota gutxienez ere euskaraz eta gaztelaniaz eta proiektua edo programa bera burutzeko aurreikusitako diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua lagun izan beharko du egikaritze-egutegiarekin batera.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Elkarteen Erregistroko inskripzioaren kopia.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

5.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, 30 eguneko epean aurkez daitezke, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta berekin batera jasotzen diren agiriak ere, zuzenean artxibatu egingo dira.

6.- Proposamenak egin eta ebaztea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruz eta proposamena egingo dio Alkatetzari gaia ebatz dezan.

7.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen erakunde orori, gehienera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabeteko epean.

8.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, beranduenera ere, ebazpena emandako datatik zenbatutako 2 hilabeteko epean ordainduko da.

9.- Diru-laguntza zuritzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea, gastuen zerrenda zehaztua dagozkion fakturak edo agiriak sartuta. Proiektuarekin zuzenean loturiko zeharkako gastuek, administraziokoek nahiz gestiokoek ezin izango dute %7a gainditu. Gastu Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.

2. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak gainditzen ez dituzten erantzukizunezko aitorpena.

3. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo bestela adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

10.- Egiartzatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, beranduenera ere, laguntza jasotako urtea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

11.- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, kasua bada, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenaren alde azaldu dira.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

7.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK:

a.- Udal ekipoak aurkezten duen emakumearen egunari buruzko erakunde-adierazpena.

Zezenia Herrador andreak (BILDU), ondorengo adierazpena irakurri du:

*“ERAKUNDE-ADIERAZPENA, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA
DELA-ETA*

1911ko martxoaren 8an aldarrikatu zen lehendabizikoz emakume langilearen nazioarteko eguna. 101 urte igaro dira dagoeneko, eta oraindik ere emakumeek lan arloan zein arlo sozialean diskriminazio latza pairatzen dute.

Egun ezin da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaz hitz egin; izan ere, emakumeak giza generoaren gehiengoa badira ere, mundu zabalean zehar ez

dituzte oinarrizko eskubideak bermatuak, esaterako hezkuntza eskubidea, osasuna, sexualitatea edota ordaindutako soldata.

Legedi mailan aurrerapausoak ematen baldin badira ere gutxinaka-gutxinaka, benetako berdintasun errealean bizitzetik oso urruti gaude oraindik. Sistema patriarkalean sorburu duen emakumearen zapalkuntza errotik atera behar dugu, eta ahaleginak bateratzen eta kontzientziazioa lantzen soilik lortuko dugu emakumeen eskubideak berdintzea.

Mundu osoan maila berdineko elkarbizitza lortzeko, gure ingurunetik bertatik hasi behar dugu lanean; etxean, familian, eskoletan eta lantokietan, kontuan izanda ezin dela aurrera egin gizartearen biztanleen erdiak eskubideen urraketak pairatzen baditu etengabe. Sistematikoki bere eskubideak ezereztzen zaizkion gizartea ez da ez gizarte sanoa ez eta berdintasunekoa.

NBEak 2000. urtean onartu zituen Milurtekoko Garapenaren zortzi helburuetako bi zuzen-zuzenean emakumeari zuzenduta daudela jabetzen gara: bere autonomia, osasuna, sexualitatea eta hezkuntza. Argi daukagu emakumeen zapalkuntza, edozein izanik ere bere modua, demokraziaren hutsune izugarria dela, giza eskubideen urraketa, eta planetako edozein tokitan gizarteak duen gaitza. Uste dugu emakumeen eskubideenganako kontzientziazio lana, eta noski, hauek bermatzen dituzten politiken jorratzea erakunde guztien betebeharra dela.

Milaka emakumeren lana eta irmotasuna eskertzen dugu, hala nola hauen berdintasunerako kontzientziazioan egindako beharra, beraien nekaezintasunari esker egungo emakumeek lan eta gizarte mailan hobekuntzez gozatu dezaketelako. Gizarte guztiari berdintasunaren aldeko aldarrikapena egin dezan dei egiten diogu, emakumeena, kendu edo desagerrarazi ezin daitekeen eskubidea delako. Kezka agertzen dugu, era berean, emakumeen aurkako bortizkeria mota oro (sexuala, fisikoa, psikologikoa, ohiturazkoa, etab.) hala esparru pribatuan nola publikoan erauzia izan arte emakumearen jabeakuntza eta berdintasuna ez direlako errealitate bihurtuko.

Emakume langilearen nazioarteko eguna aldarrikatzeko asmoz, Gipuzkoako Batzar Nagusiek honako ERAKUNDE ADIERAZPEN hau egiten dute:

1. Beasaingo Udalak, gaur eta beti, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromiso irmoa mantentzen dute, bai eta emakumeen eskubideen defentsarako borrokan ere.

2. Beasaingo Udalak Milurteko Garapenerako Helburuekin bat egiten dute, Nazio Batuen Erakundeak zehaztu zituen zortzi helburuetan oinarrituta, jakin badakigulako emakumeen eskubideak gizonezkoenen parean ez dauden bitartean ezingo direla lortu.

3. Beasaingo Udalak emakumeak gizarteko arlo guztietako partaide izatearen beharra azpimarratzen dute, bai eremu publikoan bai pribatuan; izan ere, emakumeen ekarpena, ikuspegia eta esperientzia behar-beharrezkoak dira berdintasunezko gizarte justu eta baketsua lortzeko bidean.

Zentzu horretan, Beasaingo Udalak gizarteari eskatzen dio herritarrek beraiek eskatzeko genero parekotasuna erakundeetako ordezkariak hautatzerakoan, eta emakumeen presentzia handiagoa enpresetako goi karguetan edo batzordeetan.

4. Beasaingo Udalak berdintasun eta kontzientziario politikak jorratzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dute, bai eta gai hau legegintzaldi honetako ardatz nagusitako bat bilakatzeko ere.

5. Beasaingo Udalak euskal gizartea bultzatu nahi dute egun hau, **EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA**, ospatzeko antolatu diren ekimen orotan parte hartzera, benetako berdintasun eraginkorrean oinarritutako gizartea lortzeko asmoz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenaren alde azaldu dira.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- BILDUK aurkeztutako Tibet-i buruzko adierazpen instituzionala.

Alkate jaunak ondorengo adierazpenaren berri eman du:

“TIBETI BURUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA

Tibetek Txinakoarekin zerikusirik ez duen nortasun nazional, kultural eta erlijiosoa gorde du bere historian zehar. Txinak 1949an inbaditu zuen arte hainbat estatuk de facto aitortutako herrialdea da. Nazioarteko zuzenbidearen eta Nazio Batuen ebazpenen arabera, Tibet lurralde okupatua da urte hartatik aurrera.

Okupazioaren ondoren, Txinako Herri Errepublikako gobernuaren indarrek abian jarritako polizia- eta kontrol-erregimenak sekulako ankerkeriaz jokatu du tibetarrekin, pertsonen oinarritzko eskubideak sistematikoki urratuz: derrigorrezko abortuekin, emakumeen esterilizazio behartu eta eskala handikoarekin, torturarekin, bahiketekin eta pertsonen desagertzeekin. Jardunbide horiek tibetarren nortasunaren arrasto oro ezabatzeke xedea duten beste batzuekin osatzen da, esaterako, Tibeten ondare kultural eta erlijiosoa eta ingurune naturala suntsitzearekin.

Tibeteko herriaren hainbat hamarkadako erresistentziaren ondoren, Txinako agintariak beste mota bateko "azken soluzioa" jarri zuten abian 80ko hamarkadan: "diluzio bidezko" benetako garbiketa etnikoa, Txinako biztanleen Tibeterako lekualdaketa masiboko politikan oinarritutakoa. 40ko hamarkadan ehunka gutxi batzuk baziren ere, gaur egun Han etnia txinatarrako 7 milioi biztanletik gora daude Tibetean, eta tibetarrak gutxiengoa dira euren herrialdean. Herrialde okupatzailearen helburua 2020an Tibetean bizi diren txinatarrak 40 milioi izatea da. Hori galarazten ez bada, herri tibetarra, bere hizkuntza, kultura, erlijioa, ohiturak eta tradizioak historiako liburutara mugatuta geratuko dira betiko.

Ezin da denborarik alferrik galdu eta, oraindik garaiz gaudenez, orain geldiarazi behar dugu genozidio isil hau.

Mundu osoko instituzio, antolakuntza eta erakunde askok eta askok egin dituzte Tibeti buruzko adierazpenak. Honako hauek dira aipatzeko moduko batzuk: Europako

Legebiltzarrarenak, Tibeten egindako giza eskubideen urraketari buruzko parlamentuko ebazpenak, Europako hainbat parlamentuk onartutakoak, gutxiengoaren eskubideen diskriminazioaren eta babesaren prebentziorako Nazio Batuen Azpibatzerdeak 1991ko abuztuaren 23an hartutako ebazpena, Europar Kontseiluko Parlamentuko Batzarrak onartutako ebazpena (Alemania 173, 1988ko urriak 5), eta Kongresuak eta Diputatuen Ganberak, Australiako Senatuak eta Ordezkarien Ganberak, Liechtensteingo Legebiltzarrak eta Txekiar Errepublikako Legebiltzarrak onartutakoak.

Adierazpen horien ildotik, udaleko Osoko Bilkurari honako hau onartzeko proposatu nahi dio:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1. Beasaingo Udaltzarak Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatzen die Europako Parlamentuaren 2000ko uztailaren 6ko Ebazpeneko ildoei jarraitzeko, non **“parte diren gobernuei eskatzen zaien kontutan hartzeko erbestean dagoen gobernu tibetarra Tibeteko herriaren ordezkari legitimo moduan onartzeko aukera, baldin eta hiru urteko epean, Beijingo agintariek eta erbestean dagoen gobernu tibetarrak, Nazio Batuen Idazkari nagusiaren zaintzapean emandako negoziazioen bitartez, ez badute akordiorik lortu Tibeterako estatutu berri baten inguruan”**, tibetarrei esparru guztietan autonomia osoa bermatuko dien akordioa lortzen laguntzeko, esparru politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen, defentsa-politikaren eta kanpo politikaren salbuespenekin.
2. Beasaingo Udaltzarak Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari eskatu nahi die onar dezatela Europako Legebiltzarraren proposamena Tibeteko erbesteko gobernuaitortzekoa, mugaegunaren hiru urteko aldia igaro ondoren.
3. Beasaingo Udaltzarak Estatuko Gobernuari eskatzen dio berehala erantzuteko Europako Legebiltzarraren 1998ko urtarrilaren 16ko eta 2002ko apirilaren 11ko ebazpenei, EBren Tibeterako Ordezkaritza Berezitaren baten izendapena babestuz.
4. Beasaingo Udaltzarak alkateari eskatzen dio Tibeteko bandera jartzeko udaletxeko balkoian 2012ko martxoaren 10ean, Tibeteko 1959ko Matxinada ospatuko den egunean.”

Mozioarekin amaitzeko Alkateak esan du mozioan bandera udaletxeko balkoian ez dela jarriko eguna pasa delako.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “Sobre esta moción tengo que decir, sobre el primer punto, que este es un tema de derecho internacional. Con el segundo y tercer punto, estoy de acuerdo. Con el cuarto punto no estoy de acuerdo, ya que la bandera del Tíbet puede ser colocada, pero hay obligación de colocar la española y no se coloca.

Por lo tanto, me voy a abstener.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Gu alde gaude eta orain ez da bandera jarriko, baina nik gogoratu nahi dut akordio bat ba dagoela adieraziz, udaletxeko balkoia bakarrik erabiliko dela gureak diren ikurrak jartzeko. Aurrera begira ere, jakin behintzat nola dagoen.”

Alkate jaunak (BILDU): “Hori bagenekien”.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, H1, NAHIA)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE, PP)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da.

8.- MOZIOAK:

a.- BILDUK aurkeztutako lan-erreformari buruzko mozioa.

Alkate jaunak ondorengo mozioaren berri eman du:

“Otsailaren 11n, Espainiako Erresumako Gobernuak lan-merkatuaren erreformarako Dekretua argitaratu zuen, Estatuaren Aldizkari Ofizialean. Erreforma hori langileen eskubideen aurkako eraso bortitza da. Langile kopurua igotzeko aitzakiaren azpian, erreformaren benetako asmo bakarra ezkututzen da: soldatak eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak murriztea.

Kaleratzeko unean langileak dituen eskubideak muturreraino murriztu dira: joan zen mendeko baldintzetara itzuliz, Mariano Rajoyren taldeak doako kaleratze askea berrezarri du kontratuko lehen 12 hilabeteetarako, ia enpresa guztiek, % 99,23k zehazkiago, erabili ahal izango dutena. Hori gutxi balitz, Erresumako Gobernuak beste pizgarri bat eman nahi izan die enpresaburuei kontratu berri horren harira, kontratu hori indartzeko hobariak emango baititu. Ildo beretik, gainerako kontratuak ere murriztu egin dira, urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina desagertu egin baita, urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordaineko kaleratzea orokortzearekin batera.

Erreforma horrek ezerezean utzi nahi du negoziazio kolektiboaren bitartez orain artean lortutako guztia. Horretarako, langileen ordezkarietara eskuak lotu dizkie patronalaren

aurrean: enpresa-hitzarmenei lehentasuna emango zaie sektore-hitzarmenen aurretik, ultrajarduera bi urtera bakarrik mugatu da, eta, hori gutxi balitz, enpresek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute, hitzarmena indargabetuta utzita. Gainera, enpresaburuek langileen lan-baldintzak nahierara aldatu ahal izango dituzte, ordutegia, kokapen geografikoa edota soldata aldatuz.

Erreforma ez da horretan geratuko, ordea. Gazteei ere eraso egingo die beste behin, batetik, gazteentzako prestakuntza-kontratua 33 urtera arte luzatuko duelako, 481€-ko soldatarekin, eta, bestetik, enpresei gizarte-kotizazioak barkatuko dizkielako. Bestetik, erreformaren eraginez, langileak laneratzeko kudeaketa pribatizatu egin liteke, zeregin hori Aldi Baterako Laneko Enpresen esku utzita.

Argi dago Euskal Herriko langileek ez dutela erreforma hori begi onez ikusten, inondik inora. Horregatik, argi eta garbi aldarrikatu behar dugu Euskal Herriko gizarte- eta ekonomia-politikak erabakitzeko dagokigun eskubidea, eta behar-beharrezkoa dugu eskubide hori baliatzeko tresnak berehala eskuratzea. Gure lan-eskubideak defendatzeko bide bakarra delako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, PROPOSAMEN hau aurkeztu nahi dugu, BIZKAIKO Batzar Nagusien OSOKO BILKURAK eztabaidatu eta onar dezan:

1. Beasaingo Udalbatzako kideok lan-erreforma salatu nahi dugu, enpresa-kudeaketa eskasaren eta ekonomia-eredu okerraren ondorioen zama guztia langileen bizkar gainean utzi nahi duelako.

2. Beasaingo Udalbatzako kideok Espainiako Erresumako Gobernuari lan-erreforma lehenbailehen indargabetzea eskatzen diogu.

3. Beasaingo Udalbatzako kideok Lan Harremanen Euskal Esparrua indarrean jartzea eskatzen dugu, lan-merkatua arautu behar duten legeak erabakitzeko aukera euskal herritarroi emango diguna.

4. Beasaingo Udalbatzako kideok herritarrei dei egiten diegu martxoaren 29an lan-erreformaren aurka deitutako Greba Orokorrean parte har dezaten.

5. Beasaingo Udalbatzako kideok, Euskal Herriko legebiltzarkide hautetsiei kongresuan eta senatuan lan-erreformaren aurkako botoa ematea eskatzen diegu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bi aurkako mozio aurkeztu dira, bata alderdi sozialistak eta bestea eusko alderdi jeltzaleak.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE) ondorengo aurkako mozioa aurkeztu du:

“ARGUMENTARIO CONTRA LA REFORMA LABORAL DEL GOBIERNO DEL PARTIDO POPULAR.

Mediante Real Decreto-ley 3/2012, de 10 de febrero, el Gobierno del Partido Popular ha aprobado una serie de medidas urgentes para la reforma del mercado laboral. Dicho Real Decreto-ley, contiene una serie de medidas muy regresivas que suponen pérdida de derechos laborales individuales y colectivos, abaratamiento y mayores facilidades para el despido, y precarización de las condiciones de trabajo.

En cuanto a la indemnización por despido improcedente, hay que destacar que la reforma **generaliza los 33 días de salario por año trabajado**, con un máximo de 24 anualidades (antes de la reforma la indemnización era de 45 días de salario por año trabajado con un máximo de 42 mensualidades de trabajo).

La reforma elimina la **autorización de la Autoridad Laboral** previa en el caso de los despidos colectivos o EREs, lo que llevará indefectiblemente a una judicialización de estas extinciones de contratos de trabajo. Desaparece, por tanto la tutela administrativa previa, por parte de la Autoridad Laboral.

Asimismo, la reforma amplía las causas económicas con el siguiente tenor: “se entiende que concurren causas económicas cuando de los resultados se desprenda una situación económica negativa, en casos tales como existencia de pérdidas actuales o previstas, o la disminución persistente de su nivel de ingresos o ventas. En todo caso se entenderá que la disminución es persistente si se produce durante tres trimestres consecutivos”. Esta nueva regulación es claramente regresiva, puesto que con la normativa anterior esa disminución de ingresos **debía afectar a la viabilidad de la empresa o a la capacidad para mantener el volumen de empleo**. Además el concretar que contratos de trabajo, consagra la posibilidad de despidos generalizados en estos tiempos de crisis económicas en los que disminuyen las ventas, aunque la empresa no esté en crisis.

En relación con los contratos de formación y aprendizaje la reforma mantiene que podrán celebrarse con trabajadores mayores de 16 años y menores de 25 años, si bien se permite que **hasta que la tasa de desempleo se sitúe por debajo del 15% estos contratos se podrán realizar con trabajadores menores de 30 años**, lo cual abre la puerta al fraude en la contratación laboral.

Una de las medidas más agresivas afecta al derecho a la negociación colectiva ya que, **posibilita la eliminación de la ultraactividad de los convenios colectivos**, de forma que transcurridos dos años desde la denuncia de un convenio colectivo sin que se haya acordado, un nuevo convenio o dictado un laudo, perderá su vigencia y se aplicará el de ámbito superior que fuera de aplicación **si lo hubiera**.

Esta medida es, a nuestro juicio dura y agresiva y **desarbola la posición de los trabajadores en los procesos de negociación colectiva**. De un mero análisis de su contenido claramente se puede concluir que las representaciones empresariales, sabiendo que el tiempo juega en su favor, pueden apurar la negociación colectiva para que los trabajadores renueven los convenios colectivos a la baja, bajo la espada de Damocles de que si en dos años desde la denuncia no se acuerda un nuevo convenio se aplicará el de ámbito superior (siempre con peores condiciones) 0, en caso de no existir convenio de ámbito superior **podría aplicarse directamente el Salario Mínimo Interprofesional, para empezar desde ese suelo salarial un nuevo convenio**.

En cuanto a las modificaciones sustanciales de las condiciones de trabajo se **extiende la materia objeto de modificación sustancial a la “cuantía salarial”**.

En lo que concierne al contrato indefinido de apoyo a emprendedores, hay que destacar que se establece un período de prueba de un año, lo que puede significar que al año de trabajo el empresario pueda despedir al trabajador sin alegar causa alguna y sin indemnización alegando simplemente que no ha superado el período de prueba.

Estas son sólo alguna de las medidas aprobadas por el Gobierno del Partido Popular. El Gobierno del Partido Popular ha respondido al ejercicio de responsabilidad que han demostrado los sindicatos, con una reforma desmedida e injusta, que no va a servir para generar empleo sino para precarizar el mercado de trabajo. Para crear empleo hay que fomentar y promover la actividad económica, no recortar derechos laborales. Es una reforma que deja muy tocado el Estado Social y ataca en la línea de flotación de nuestro sistema de relaciones laborales.

El grupo municipal socialista del Ayuntamiento de Beasain presenta para su debate en sesión plenaria la siguiente contra-moción:

1º) El Ayuntamiento Pleno manifiesta su más firme rechazo a las medidas para la reforma del mercado laboral aprobadas por el Gobierno del Estado mediante el Real Decreto-ley 3/2012, ya que las mismas son regresivas e injustas y no van a servir para general empleo sino para facilitar su destrucción y precarizar las condiciones de trabajo.

2º) Asimismo, este Ayuntamiento Pleno considera que posibilitar la eliminación de la ultraactividad de los convenios colectivos constituye un ataque a la negociación colectiva, la cual constituye la principal fuente para la regulación de las condiciones de trabajo.”

Jarraian, Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) ondorengo aurkako mozioa aurkeztu du:

“EAJ-PNVREN UDAL TALDEAREN MOZIOA LAN MERKATUA ERREFORMATZEKO PREMIAZKO NEURRIEN GAINEKO 3/2012 ELDaren INGURUAN.

Lan merkatuaren erreforma 3/2012 ELDaren barruan dago, eta berarekin dakar atzera egite larria, langileen oinarritzko eskubideak murrizten ditu, eta enpresari eta langileen arteko harremanak desorekatzen ditu. Testu honekin, enpresariari ahalmen handiagoak ematen zaizkio langilearen txarrerako, eta azken hau ziurgabetasun eta babesgabetasun handiagoan geratzen da. Proposamen honek are gehiago urruntzen du lan merkatuaren arautzea, flexisegurtasun eredu arrakastatsuetatik .

Lanpostuen prekarizatzeak ez du lehiakortasun handiagoa eragingo, erreforma gaizki enfokatuta dago. Lehiakortasuna ez da lan baldintzak murriztearekin , soldata eta langileen kaleratzea merkatzeareki lortzen; lehiakortasuna eredu produktiboaren aldaketatik sortarazi behar da, pertsonen prestakuntza eta birziklapenaren aldeko behin betiko apustutik, oreka eta balio erantsi handiagoa eta I+G+B kontzeptuan inbertsio handiagoa egitea ekarriko duen aldaketatik.

Erreforma honek oztopatu egiten ditu Euskadin arautzeko ditugun gaitasunak eta gure erabaki esparrua. Negoziaketa kolektiborako eredu zentralizatzailea sustatzen

du, autonomiako lan harremanetarako esparruari eraso eginez eta euskal errealitate sindikalaren berezitasunak eta autonomi eremuko lanbide arteko hitzarmen eta akordioak kontuan hartu gabe.

Era berean, eraso egiten zaie Euskadik enplegurako politika eraginkorren inguruan dituen eskumenei. Lege Dekretuak enplegu eta Lanbide Heziketa arloan baliogabetu ziren arau asko berpizten ditu, eta orain, derrigorrez bete beharrekotzat aurkezten zaizkigu. Era honetan, de facto hutsik geratzen da enplegurako politika aktiboen transferentziak zuen eduki garrantzitsua.

Halaber, ELDak ere euskal autogobernuari eragiten dio zergen inguruko euskal autonomia errespetatzen ez delako, lan politikaren partetzat jo ezin diren pizgarriak ezartzen dira, Foru Aldundien eskumeneko zerga politikako tresna diren neurrian ikusi beharrean.

Arestian azaldutakoagatik guztiagatik, EAJ-PNVren Udal Taldeak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten du honako

MOZIOA

- 1. Beasaingo Udalak 3/2012 Erret Lege Dekretu barruan dagoen lan erreformaren kontrako gaitzespena adierazten du, lehiakortasuna irabazteko helburua duela ezartzen duen arren, lan merkatuaren arautzea modifikatzen duelako eta lan baldintzak eta soldatak baliogabetu eta narriatzen dituelako.*
- 2. Beasaingo Udalak lan harremanetarako marko autonomoa exijitzen du, Euskadin adostutako eta onartutako kontzertazioa, elkarrizketa soziala eta lan araudi propioa egiteko aukera ahalbidetuko duena.*
- 3. Beasaingo Udalak enplegurako politika eraginkorren eskumena osorik transferitzea exijitzen du eta zerga eta tributu politikak ez eragozte; honek ahalbidetuko du Euskaditik bertatik enplegua sustatzeko behar diren neurriak garatzea, gure berezitasunak kontuan izanik.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Es una reforma laboral que amplía los derechos de los ciudadanos. El nuevo modelo de formación profesional incluirá una “cuenta formación” asociada al número de afiliación a la Seguridad Social de cada trabajador. Esta medida garantizará el derecho a la formación profesional de los trabajadores, en especial a los jóvenes, durante toda su vida activa. Los ciudadanos tendrán más oportunidades para prepararse, actualizar su formación y encontrar puestos de trabajo de calidad. La prometida igualdad

del Gobierno socialista choca con las cifras que deja: más de dos millones de mujeres sin trabajo y una brecha salarial del 22%. Se potenciará la conciliación de la vida laboral y familiar con la racionalización de horarios, las guarderías en empresas y la incorporación del teletrabajo. Se incluye un Plan de empleo para incentivar la contratación de mujeres, con especial atención a mujeres menores de 30 años y paradas de larga duración. Se pondrá en marcha un Plan Especial para la no discriminación salarial entre hombres y mujeres. Se bonificará con 4.500 euros la contratación indefinida de parados de larga duración. Para las personas con cargas familiares se facilitará su incorporación al mercado laboral y se priorizará su permanencia en la empresa.”

Josi Insausti jaunak (H1), bost minutu bilera etetea eskatu du, BILDUren mozioa eta aurkako mozioen arteko adostasuna lortzeko.

Alderdi sozialistaren zinegotziek, eskaera hori ez dute onartu, beraiek bere mozioarekin langileen eskubideak defendatu nahi dituztelako. PPko ordezkaria ere Josi Insausti jaunak egindako eskaera ez onartzearen alde azaldu da. Beste guztiek, ordea, bai.

BILDU, EAJ, H1 eta NAHIA udal taldeetako ordezkarien artean eztabaidatu ondoren, Alkate jaunak esan du BILDUK aurkeztutako mozioaren laugarren puntua aldatzea proposatzen dutela, zentzu honetan: *“Beasaingo Udalbatzako kideok herritarren eskubide-greba onartzen dute.”*

Horren ondorioz, alderdi sozialistak aurkeztutako aurkako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 2 (PSE-EE/PSOE)
Aurkako botoak: 1 (PP)
Abstentzioak: 14 (BILDU, EAJ, H1, NAHIA)

Jarraian, BILDUK aurkeztutako mozioa, laugarren puntua Alkateak esandako moduan aldatuz, bozkatu egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, H1, NAHIA)
Aurkako botoak: 1 (PP)
Abstentzioak: 2 (PSE-EE/PSOE)

Gehiengo absolutuarekin onartu da.

b.- BILDUK aurkeztutako, Gipuzkoako Itsasoko azpiestazioa eta Nafarroako Dicastilloko azpiestazioa lotuko duen 400 KV-ko linearekiko proiektua.

Alkate jaunak adierazi du mozio hau gai-zerrendatik erretiratu egiten duela eta horren ondorioz mahai gainean gelditu da.

9.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2012ko otsailaren 14tik, 2012ko martxoaren 12ra bitarte emandako Ebazpenak.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderetan honelakoak aurkeztu dira:

ERAIKINEN INSPEKZIO TEKNIKOA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) adierazi du bere garaian erabaki zela, eraikinen inspektzio tekniko egitea, amiantoa duten eraikinen inbentarioa egiteko. Galdetu du ea nola dagoen gai hori.

Alkateak erantzun du esanez, "Plus-Euskadi" lan-programa erabili behar zela lan hori egiteko, baina azkenean ez zela lortu dirulaguntzarik programan horren barruan hori egiteko. Badirudi GUREAK enpresak ere horrelako lanak egiten dituela, baina ez zutela oso ondo ikusten eta horren ondorioz udal teknikoekin eta lan-osasun batzordearekin batera erabaki dela, horretan espezializatua den enpresa bat kontratatzea lan hori egiteko.

UDAL ALDIZKARIA

Josi Insausti jaunak (H1): la intervención no sólo la realizo en mi nombre sino también en nombre de PNV, PSE-EE/PSOE y PP. La comisión de participación se posicionó a favor de realizar un procedimiento negociado para contrata diversos servicios en relación con la comunicación y entre ellos el de la redacción de la revista municipal, con la condición de que también se invitara a participar en el procedimiento a una empresa de comunicación de Beasain y que en la comisión se acordara el modo de estructurar y configurar la revista municipal.

Sin embargo hemos sabido, que lo decidido en comisión no se ha cumplido. No se invitó a ninguna empresa de Beasain ni tampoco se ha acordado nada respecto a la segunda cuestión. Fruto de ello han sido las respuestas que hemos dado los grupos que he mencionado, que dicho sea de paso han podido no ser del gusto de todos.

Lo que pedimos es que se respeten los acuerdos que se adoptan en comisión en relación a los temas debatidos en las mismas o de lo contrario, que no se lleven a comisión aquellos asuntos competencia del Alcalde.”

Zezenia Herrador andreak (BILDU): “Batzordean hori hitz egin zenetik batzorderik izan ez denez, gure nahia izan da zuei hitza ematea, aldizkaria aurrekoaren jarraipena izatea nahi delako. Horrek ez du esan nahi batzordean gaiak jorratuko ez direnik.”

HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Esta semana hemos tenido conocimiento de que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas ha emitido el informe de fiscalización referido al ejercicio económico 2009, si bien nosotros pedimos que se auditaran también el 2007 y el 2008. A mediados de noviembre se da traslado al Alcalde del informe provisional emitido al objeto de realizar alegaciones. Nada sabíamos entonces de lo que se estaba haciendo. Ahora hemos sabido que el informe reparte un poco para todos. Dice que no hay cosas ilegales, pero sí prácticas que habría que corregir. Una de las cosas que más llama la atención es el despido de un trabajador al que se le abonaron 25.000 €, sin tramitación de expediente ni soporte jurídico alguno.

Todas las alegaciones que hace el actual Alcalde coincide con las que hace el de la anterior legislatura y hay cierta incoherencia en ello porque en el pleno pasado el gobierno actual criticaba la actuación del anterior gobierno.

También hay que mencionar la empresa instrumental del Ayuntamiento que puede hacer tambalear la economía municipal.”

Alkate jaunak adierazi du alegazioak sinatu egin zituela eta behar bada ez zituela sinatu behar.

Aitor Aldasoro jaunak esan du (EAJ) Kiroldegiaren eraikuntzak izandako aurrekontua kontuan izanda, egon den desbideraketa ez dela hainbestekoa izan.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta bost minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

